AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

UDA GIROKO SAN JUAN JAIAK

Eguraldiak ez zuen egitaraua baldintzatu, eta jai guztietan zehar parte hartze handia izan zen. Andoaingo auzoetako jaiak iristear dira. / 5-12

San Pedro jaiak Andoaingo Kaletxikin

Hugo Lorenzo auzokidea izango da aurtengo Kandido, ostiralean hasi eta igandera bitarte luzatuko diren jaietan. Egitarauan rap musika, dantza eta sagardo dastaketa / 16

Akelarrea Urnietan, beste behin ere suaren inguruko festa ikusgarria Plazido Muxika plazan / 2-3

Udal korporazio berriak Goikoplazan dantza soka eskaini zuen, San Juan sua piztu aurretik / 8

Sua piztuta, jendetza harmailetatik jaisten hasi zen. Hainbeste herrikide batzen duen ekitaldi gutxi dira Urnietan, urte osoan zehar. AIURRI

Akelarrea Urnietan

San Juan bezperako ospakizuna biziberritzeko ahalegina aitortu behar zaio antolaketaz arduratzen den taldetxoari. Musika, dantza eta antzerki ikuskizuna eskaini zuen, igande gauez. Ohi bezala, ekitaldiak ikusmin handia piztu zuen

Mari eserita izan zen ikuskizun osoan zehar, seinalea zabaldu zuen arte. AIURRI

Jon Ander Ubeda URNIETA

Zuriz jantzita eta Udal musika eskolako trikitilariek eta panderojoleek lagunduta, Akelarreko protagonista nagusiak San Juan plazatik Plazido Muxika aldera kalejiran abiatu ziren. Plazara iritsi orduko, gaztetxoak belarrekin apainduriko paper mendixka azken paper eta liburuxkekin loditzen ari ziren. Azken urteetan sugarrak tamaina handia hartzera iritsi zirelako edo, aurtengoa txikixeagoa izan zen. Ez zen horregatik eskasa, halere. Sua pizteko minutu gutxiren faltan, jendetza harmailetan festa noiz hasi zain zegoen. Musika doinuekin batera herriko ikasletxeetako ikasle talde batek euskal dantzak eskaini zituen. Eta, segidan, Akelarrearen antzezpenari hasiera eman zieten. Dantza eta kantu ezberdinen artean, emakumeak aske bizitzeko nahia aldarrikatu zuten. Ereserkia egokirik bada, hura *"Erre zenituzten" kantua da: "Erre zenituzten sorgiñen oinordeak gara gu. Erre zenituzten erratzak guk dauzkagu. Erre zenituzten arima ez da galdu. Erre zenituzten irrifarrak gara gu"*. Emakumearen aldarria eta euskal mitologia, biak batera uztartu zituzten ekainaren 23ko ekitaldian. Dena esatera, Urnietako Akelarrea taldeak herriari eskaintzen dion ikuskizuna txalotzekoa da. Herriko bertako ospakizuna indartzeko gogoa eta ahalegina nabaritzen baitira.

Suaren piztuerarekin batera, txanbolin taldeak emanaldiari ekin zion. Bitartean, jendetza hurbiltzen ari zen piztu berria zuten sua bertatik bertara ikustera.

Aker bi laguntzailerekin hurbildu zen plazara. Jauzi ikusgarriak eskaini zituzten. AIURRI

Urnietako Akelarreko protagonista nagusien irteera, San Juan plazan. AIURRI

Udal musika eskolako trikitilariak eta panderojoleak emanaldiaren hasieran. AIURRI

Sua piztearekin batera txistularien doinuak plaza osora zabaldu ziren. AIURRI

Emakumezkoa protagonista

Paperez betetzen aritu ziren, azken unera arte. AIURRI

Gogotsu dagoen lantaldea Urnietako Akelarrea osatzen dutenen kemenari esker, San Juan suaren atarikoa ikuskizun bilakatu da. Eta ikusmina piztea lortu dute, jendetza hurbiltzen baita plazara. Antolaketan dabilen emakumezko taldeak txaloak merezi ditu.

Ikuskizunaren uneren batean, arropa garbitzen ari zirela irudikatu zuten. AIURRI

Antzerkia Parte ezberdinetan zehar egoera ezberdinak irudikatu zituzten. Emakumea bere zereginetan batzuetan, eguneroko lanetan murgilduta. Aro ilunagoa irudikatzeko arropa ilunagoak erabili zituzten. Aker eta Mariri esker, korapiloa askatzea lortzen dute.

Ikastetxeetako partaideek ere dantza egin zuten. AIURRI

Ikasleen parte hartzea Belaunaldi ezberdinek ikuskizun berean parte hartzea lortzen da Urnietako Akelarrean. Jaiaren hasierako kalejira San Juan plazatik irten eta gero, herriko ikastetxeetako ikasleen dantza saioarekin hasiera eman zioten ikuskizunari.

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA

ZABALIK

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Bidaia on Urko

Mina. Urko hil da. Lehor. Gogor. Hotz. Igande eguerdia. “Orain ordubete hil duk”.

Mina. Azalpenik ez baitago. “Nola ba?”, galdera. Erantzunik ez. Heriotzak bueltarik ez baitauka. Eta ez daukala onartzen asmatzen ez dugunez, mina ematen jarraituko digu. Beti.

Mina. Igande arratsaldea. Guria-ko atarian. 10, 20, 30 lagun. Koadrilakoak batzuk, lagunak besteak. Mina ematen duen isiltasuna. Aurpegi tristeak. Bakoitza bere munduan murgildua.

Urko Muñoz Berasategi laguna joan zaigu. 35 urterekin. Mina. Osatzen ari zelakoan baikinen. Pasatzen ari zen kalbarioa azkenekoetan zela.

Mina. Xauxar tabernako atarian urtetan elkarri botatzen genion ongietorri oihua haizeak eraman duelako betirako. ‘Sardinas’! esaten genion elkarri. Konplizitatea sortzeko identifikazioa. Zenbatetan, Idiazabal kaletik Pintore aldera buelta,

despistatua, eta bat-batean, leiho edo balkoiren batetik: “ze habil, sardinas?”. Eta Urko han, bere etxeko leiho edo balkoian, bazilatzeko gertu. Neuri eta ezagutzen zuen guztiari.

Halaxe baitzen Urko. Mutil alaia. Irribarre errazekoa. Bizitzak eman dizkion adarkadei kementsu erantzun ziena. Horregatik mina. Aita eta ama aspaldi joan zitzaizkion, lana beltz egin zuen gaztetandik. Baina txarrenean ere, bizirik mantendu zuen bizitzaz gozatzeko asmoa: hango parranda, hemengo oporrak… “orain ezin dut, baino sendatzen naizenean denak batera egingo ditugu!”, botatzen zuen. Baina konforma erreza zen, bere ebakitxoa tabernan, bere txustarra, bere egonaldi luzeak koadrilak Urraka auzoan zeukan lokalean…

Bienvis-en Riojano taberna zen Urko topatzeko tokirik egokiena, azken urtean. Xauxar-ko pertsiana jaitsita, hara joaten zen bazkal oste askotan. Handik koadrilaren lokala ere pauso batera zeukan. Manex eta Panfi-rekin hara bazkaltzera joan izan garenetan gustura hartzen genuen kafetxoa berarekin. Bazkari mokadua egitera ere esertzen zen zenbaitetan. Han kontatzen zizkigun zama lanak eskatzen zituen jardunik ezingo zuela egin, oso ahul sentitzen zituelako hankak, eta baja bukatzean bulegoko lanen bat bilatu beharko zuela, umoretsu, “zeladore moduan edo. Hori bai, erretzeko baimena kontratuan jarrita e?”. Bere ez gaitasuna onartzeko zeraman borrokak ere indarra eman zion, ustez okertu zena bere aldeko bilakatu, eta ez gaitasun osoa aitortu baitzioten ez aspaldi. Euskaldun zaharra zen, baina azken hilabeteetan iraganean galdutakoa berreskuratzen ari zen, eskolak hartuz, animoso.

Eta erietxera hankan kendu ziotena osatzeko joana zela uste genuenean etorri da kolpea. Abisatu gabe. Heriotza asko bezala. Mina kolpetik. Urkok gehien maite zuen egunetako batean, San Juan bezperan. Oroitzapena bizirik mantentzeko egun aproposa.

Bidai on sardinas!

"IGANDE ARRATSALDEA. GURIA-KO ATARIAN. KOADRILAKOAK BATZUK, LAGUNAK BESTEAK. MINA EMATEN DUEN ISILTASUNA"

"MINA KOLPETIK. URKOK GEHIEN MAITE ZUEN URTEKO EGUNETAKO BATEAN, SAN JUAN BEZPERAN"

ESKELA

Urko Muñoz Berasategi

Ekainaren 23an hil zen, 35 urte zituela

Eskerrik asko eman diguzun guztiagatik.
Beti oroituko dugu zure irribarrea.
Adiorik ez.
Urko, beti gurekin.

Zure lagunak

Urnietan, 2019ko ekainaren 24ean.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA
www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri: Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra: Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. andoain@aiurri.eus. www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnieta).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ BAIZU MUGATUA
ALIATUAK: INISTORRE TOKIKOM
BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA: ANDOAINGO UDALA, Urnietako udala
DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA: EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA; Gipuzkoako Foru Aldundia Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza
ZIURTAGIRIA: 2017 Bikain
BABESLEAK: **Aiurriko harpidedunak** ezinbestekoak dira.

AIURRIk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Atzoko, gaurko eta etorkizuneko txistulariak Goikoplazan. AIURRI

Merezitako omenaldia

Ez ohiko emanaldia izan zen ostiral arratsaldeko kalejira, minutu gutxira San Juan jaietako protagonista nagusi bilakatu zirelako. Pregoiaren eta urteurrenaren harira, Olagain txistulari elkarteko kide ohiak ere Andoaingo kaleetan txistua joz aritu ziren

Udaletxeko balkoitik pregoia irakurri eta jaien hasierako suziria bota zuten. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Olagain Elkarteko txistulari guztiak agertu ziren balkoian, txupinazoa jaurtitzera. Gogoratu zutenez, Txistularien Banda 1979ko abenduaren 25ean atera zela Andoaingo kaleetara lehenbizi aldiz, Joxe Goikoetxea, Joxe Mari Huizi eta Joxe Luis Etxeberria izanik bere sortzaileak. "Hurrengo urteetan, partaide ezberdinek osaturiko banda hau txistuaren, atabalaren eta danbolinaren kultura transmititzen saiatu da, herriko festa eta ospakizun ezberdinetan parte hartuz". Azkenik, honako gonpidapena egin zien plazan bildu ziren herritarrei: "tristurak alde batera utzi, eta gozatu San Juan jaiekin!". Bandarentzat hain kuttuna den zortzikoa udaletxeko balkoian bertan joz eman nahi izan zioten hasiera 2019ko San Juan jaiei.

Jaietan hitzorduak egunero

Txistularien eginkizuna ez zen horretara mugatu, eta egunero-egunero ekitaldi ezberdinetan parte hartu izan dute. Larunbatean gonbidatuekin batera emanaldi berezia eskaini zuten. Igandean Salbe Gorenean, agintarien soka-dantzan eta ondorengo kalejiran, Etxeberrietatik Goikoplazara "San Juan Zortzikoa" joz. Suan suan ere bertan izan ziren. Astelehenean Axeri dantzakoekin batera aritu ziren. Azkenik, asteartean, adinekoen harrera ekitaldian Urkiko bi dantzarirekin batera aurreskuan parte hartu zuten.

Ez dute atseden hartzeko tarte handirik izango, Kaletxikiko jaiak hastear baitira. Bertan izango dira, nola ez, txistulariak.



Kalez kale kalejiran ibili eta gero, Goikoplazara iritsi ziren. AIURRI

Erraldoien eta buruhandien konpartsa Goikoplazan, jaiari ekiteko prest. AIURRI

Tradizioz beteriko hasiera San Juan jaiei

Herriko kultur taldeen parte hartzea ezinbestekoa da San Juan jaien hasieran. Besteak beste, Olagain elkarteko txistulariak, Gora Kaletxiki txaranga, Udal musika eskolako banda, batukada feministe eta erraldoien eta buruhandien konpartsa

Buruhandiak, haur eta helduak aztoratzen, Nafarroa plazan. AIURRI

Gora Kaletxiki txaranga Goikoplazan, jaiaren hasieran. AIURRI

Batukada feministak jaiaren eremuan saio ezberdinak eskaini zituen. AIURRI

Udal musika eskolako bandaren taldeko argazkia, jaien hasierako emanaldian. AIURRI

Anbrosia Olabide eraikinaren kanpoaldean jolas ezberdinetan aritu ziren. AIURRI

Andoaindarra elkartea La Salle etorbidean behera, Goikoplaza aldera hurbiltzeko. AIURRI

Azken urtetan eguzkitakorik zatarrenaren saria eskuratu duen kuadrilla. AIURRI

Olagain txistulari banda lagunartean aritu zen. Irudian, txalo zaparrada jaso zuen Antonio Calleja kantariarekin batera. AIURRI

Jose Luis Crego eta Pedro Guerrero izan ziren aurtengo tortila onenaren egileak. AIURRI

Aurtengoan ere, Aide Jauregik eta Izkiriota elkarteak ardo dastaketa antolatu zuten. AIURRI

Kimikarin taldekoek proba ikusgarriak egin zituzten, baita suarekin jolastu ere. AIURRI

WC Grooves taldeak Su Ta Gar taldearen aurretik emanaldia eskaini zuen. AIURRI

Suak tamaina handia hartu ohi du Goikoplazan. AIURRI

Egitasmoak berritzeko aukera aparta

San Juan bezperako sua ikasturteari amaiera emateko gertuen dagoen ospakizuna da. Eta, bide batez, udako sasoiari ematen zaio. Ordura arte pilatutako nekeak eta kezkak sutara botatzeko aukera polita izaten da, irailean asmo berriekin itzultzeko

Urki dantza taldeko kideek saio ikusgarria eskaini ohi dute. Aurten Bizkaiko dantzekin osatu zuten. AIURRI

Udal ordezkarien Dantza-soka

Maider Lainez alkatea, aginte-makila eskuan. AIURRI

Udal korporazio berria Dantza-sokan lehen aldia izan zen zinegotzi postua eskuratu duten hainbat zinegotzirentzat. Besteak beste, Garazi Usandizaga, Xabier Fondon, Jose Luis Verdasco edota Txitxu Ruizentzat.

Andoni Alvarez. AIURRI

Marijose Izagirre. AIURRI

Udal ordezkariak dantzara Azken asteetan Urkiko dantzariekin batera entseguetan aritu eta gero, herritarren aurrean dantza egiteko eguna iritsi zen. Andoni Alvarezek ez zuen aginte-makila eskuratu, baina Dantza-sokan herritarren txalo zaparrada jaso zuen.

Joxe Mari Aizpuruaren alaba Ainara, Julian Lopezekin batera dantzan. AIURRI

Aitaren izenean Julian Lopez zinegotzia Joxe Mari Aizpurua Oiarzabal "Puri" adiskidearen izena eta argazkia zeraman kamisetarekin irten zen plazara. Ezaguna denez, "Puri" maiatzaren 26an zendu zen. Dantzara haren alaba atera zuen. Biek ere txalo zaparrada jaso zuten.

Salbe Gorenean parte hartu zuen Udal musika eskolako abesbatzaren ordezkaritza zabala. AIURRI

Soinuak musika eskolako kideek saio polita eskaini zuten Goikoplazan. AIURRI

Alberto Agirre abesbatza, San Martin elizaren organoaren ondoan. AIURRI

Udal musika eskolako abesbatza gaztea ikusgarri aritu zen San Martin elizan. AIURRI

Soinuak musika eskolan gitarra ikasten ari diren ikasleak, taula gainera igo aurretik. AIURRI

Fino's Band taldeak nazioarteko eta euskarazko abesti ezagunak eskaini zituen. AIURRI

Axeri Dantza belaunaldi ezberdinen bilgune bilakatu da, azken urteotan. AIURRI

Bluxadun gorrien ospakizuna

Urtez urte errotuz eta sendotuz doan ospakizuna da. Andoainen hain errotuta dagoen tradizioan, gainera, berrikuntza nagusia izan da. Izaskun Berazak hartu baitu Xato Irazuren lekukoa, Axerien buruzagitzan. Ikuskizun ederra eskaini zuten

Izaskun Beraza kapitain berria, eskutik helduta Jesus Mari aita duela. AIURRI

Goikoplazan eskaintzen duten saioa ikusgarria izan ohi da. Amaiera aldera ikusleak soka dantzara gonbidatzen dituzte. AIURRI

Axeriak txistularien doinupean dantzari aritu ziren. AIURRI

Maila oneko bertso saioa

Goi mailako bertso saioa abestu zuten Aitor Sarriegi, Agin Laburu, Andoni Egaña, Uxue Alberdi, Igor Elortza eta Onintza Enbeitak Goikoplazan. Punttuka bertso eskolako Unai Ormaetxea gai jartzailearen esanetara aritu ziren

Xabier Lasa ANDOAIN

Hainbat rol bete behar izan zituzten bertsolariek, umoreari eta hausnarketari bidea emanez: Alberdi marrazkilaria eta Elortza bezeroa; Elortza, beste alderdien paktuek baztertu duten alkategairik bozkatuena; Sarriegi eta Alberdi, aita-alabak, bideo jokoen inguruko eztabaidan; Enbeita, kritikak jasoko dituen arren iritzia emanez idazten jarraitu nahi duen kazetaria; Egaña eta Laburu, komenturik gabe geratu diren bi fraide; iritzi kontrajarriak Amancio Pradaren dohaintzaren aurrean, Alberdi alde eta Egaña aurka. Punttuka bertso eskolako haurrek ere hainbat puntu zirikatzaile jarri zizkien zenbait bertsolariei, tartean Egañari, bere burusoiltasuna dela eta. Momenturik xelebreena, gai jartzaileak sei bertsolariak puntuka librean jarri zituenean gertatu zen. Saioan zehar, bertsolariak nahastu samar ibili ziren, nork hasi eta nork buka garbi jakin gabe, eta elkarri traba eginez. Xelebrea bezain umoretsua irten zen saio hori, bertsolarien ofizioari esker.

Sarriegi, Alberdi, Egaña, Laburu, Enbeita eta Elortza kantari. AIURRI

Enbeitaren bertsoak

Oso txalotuak izan ziren Enbeitak bota zituen hiru bertsoak, Ormaetxea gai jartzaileak honako gaia jarrita: "Zu kazetaria zara, badakizu idaztera zoazenak eztabaida piztuko duela, baina erabakia hartua daukazu. Berdinberdin idatziko duzu". Gogoan izan Enbeita albiste izan dela azken egunetan, Berria egunkarian egunero idazten duen zutabean Che Guevara auzitan jarri zuela-eta jasotako kritikengatik.

Papera zuri dagoenean
bat ez dago beti lasai.
Polemikoak izan daitezke
ikusten diren mila gai.
Ta inguruan usaitzen dira
buelta-bueltaka hainbat sai,
nor zertan ari den eta zeinek
hanka sartuko duen zai.
Hitz egiteko beldurrez baina,
enuke beti bizi nahi (bis).

Objetiboa izan nahi hortan
ez dakit zenbat alegin,
baina bizitza ikusten dugu
nork bere antijuekin.
Zalantzan jarri behar da dana,
maite duguna ere berdin.
Beti ezin da zalantzan izan
etorriko den horrekin,
ze egunero oheratzen naiz
ni neure buruarekin (bis).

Idatzi baino len erantzuna
zein izango den badakit.
Eta gainera emakume naiz,
beraz badakit zergatik.
Baina kontzientzi gogorra berez
nik zerietik dakarkit.
Idatziko dut uste dudana
beti lez erraietatik,
ta eguzkia aterako da
eguneroko tokitik (bis).

Zezensuzkoa astelehen gauean, Goikoplazan. AIURRI

Munduko zaporeak

Errumania aldeko jaki gozoak dastatzeko aukera izan zen. AIURRI

Europa Errumania aldeko jakiak dastatzeko aukera izan da, aurtengoan ere. Entsalada eta opilak, besteak beste. Esaterako, Alberjinia entsalada edota donuts errumaniarra. Udalak dituen datuen arabera, 71 dira Andoainen bizi diren errumaniarrak.

Senegal aldeko Nem janaria dastatzeko aukera izan zen. AIURRI

Afrika Haragia eta barazki kurruskaria uztartuz egiten da Nem delako jakia, Senegal aldean ohikoa. Postua zabaldu eta minutu gutxira, postuak herrikide askoren arreta bereganatu zuen. Udalak dituen datuen arabera, 9 dira Andoainen bizi diren senegaldarrak.

Gutiziatxo mexikarrak dastatzeko aukera izan zen, Goikoplazan. AIURRI

Amerika Mexiko zabala da, eta bertako sukaldaritza eskaintza handia. Aurtengo hitzordura artoa, aguakatea, babarrunak eta pikantea uztartzen zituzten gutiziak eskaini zituzten. Udalak dituen datuen arabera, 12 dira Andoainen bizi diren mexikarrak.

Larogei urtekoen bazkaria egin aurretik, taldeko argazkia atera zuten Goikoplazan. AIURRI

Jaien amaierako ospakizunak

Toka lehiaketa, adinekoen bazkaria, haur parkea, haur danborrada eta dantza ikuskizunarekin osatu zen jaietako azken eguna. Gaueko su ikuskizunaz gozatzera herrikide ugari atera ziren kalera. Jendetza bildu zen Goikoplazako azken ikuskizunean

Su ikuskizuna barrenetik gozatzeko aukera baliatzen dute askok. AIURRI

Haur danborrada

La Salle Berrozpe ikastetxeko ikasleak. AIURRI

Aita Larramendi ikastolako ikasleak. AIURRI

Ondarreta ikastetxeko ikasleak. AIURRI

Danborradaren aurretik joan ohi den taldea, hainbat lanbide irudikatuz.

Kantazaun ekimen berria

Urnietan euskara eta euskal kantagintza sustatzeko ekimen berria sortu da, Kantazaun Urnietako taldea izenekoa. Urnietako Udalaren laguntzarekin, kantu liburuxka osatu dute eta horixe izango da aurrerantzean erabiliko duten erraminta. Uztailaren 5ean, ostiralarekin, lehen kantu kalejira egingo dute Urnietako kaleetan barrena (19:00).

Agintaldi berria martxan

Aste honetan zehar agintaldi berriko lehen plenoak deituko dituzte. Asteazken iluntzean Andoainen egin zuten, eta Urnietakoa ostiral honetan izango da (19:00). Besteak beste, dedikazio osoa edo partziala izango duten karguen izendapenei onespena emango zaie. Eta baita udal hautetsien ordainsariei eta talde politikoen asignazio ekonomikoari ere.

Kontzientziazio kanpaina

San Markos Mankomunitateak kontzientziazio kanpaina abiarazi du, "Birziklatzea guztion ardura da" izenburupean. Modu horretan, etxeetan sortzen diren hondakinak gaika bereizi eta botatzeak duen garrantzia gogoratu nahi die herritarrei. Herriko toki ezberdinetan egindako muralak hainbat astez ikusgai izango dira, Udalak aurreratu duenez.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

ZORION AGURRAK

ANDOAIN
Aritz Irazu Roman
Aritzek ekainaren 29 an 6 urte beteko ditu. Muxu handiak etxeko txikiari.



ANDOAIN
Norak 11!!!
Politak doaz urteak eta, hurrengoak ere horrela izan daitezela!! Muxu pottoloa etxeko guztien aldetik.



ANDOAIN
Enaitz
Uztailaren 2an Enaitzek 10 urte beteko ditu. Zorionak amona-aitona eta osabaren partez.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus
Sar zaitez "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan.
Tamaina editatzerik ezean, zorion-agurra helarazteko erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus
Mezua bidali posta elektronikora, eta idatzi: izen-abizenak, herria, eguna.

Arantzibia 4-5, behea
Etor zaitez bulegora, Andoainera. Telefono zenbakia: 943 300 732.

Whatsapp bidez:
619 163 537.

614 ZENBAKIA **AIURRI** BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

“Entrenatzea gogoko dut, horixe nire ezaugarria”

UNAI LIZEAGA ZIKLOTURISTA ETA KORRIKALARIA

Sei ordutik behera bukatu berri du Quebrantahuesos proba, 25. postuan, bere bigarren parte hartzean. Korrika ere ibiltzen da, eta dagoeneko Behobia-Donostia buruan du

Andoni Urbistondo URNIETA

Hanka zuztarrak finduta ditu Unai Lizeagak (Urnieta, 28 urte). Pasa den larunbatean bigarrenez osatu zuen Quebrantahuesos delako klasiko zikloturista, Sabiñanigon. Sei ordutik jaisteko asmoa zuen, eta hala egin zuen, onenen pare lehiatuz. Kirolari aparta da Lizeaga, baina berak ez du halako katalogaziorik egitea nahi: “Entrenatzea gustatzen zaion kirol zalea baino ez naiz”.

Nondik dator zure harremana kirolarekin?

Futbolean ibili nintzen jubenil maila arte, eta gero korrika hasi nintzen. Sei Behobia-Donostia ditut bukatuak (1.12 denbora onena), eta beste hainbeste maratoi (2.50 denbora onena). 2014an hasi nintzen bizikletan ibiltzen, egun korrika baino askoz gehiago ibiltzen naiz bizikletan. Korrika oso tarteka egiten dut, euria egiten duenean.

Bizikletako zure lan entrenamenduak Strava plataforman ikus daitezke. Ordu asko egiten dituzu errepidean.

Asko gustatzen zait, eta denbora librea daukadanean, ibili egiten naiz. Stravakoaz, automatikoki igotzen dira nire entrenamenduak. Ez daukagu ezer gordetzeko.

Ez aspaldi bederatzi orduko entrenamendu bat publikatu zenuen; 275 kilometro, 29 kilometro orduko batez bestekoan. Hori ez du jende askok egiten…

275 bakarrik egin izan ditut, baino 330 kilometrokoren bat ere egin izan dut, taldean. Irteten zara, kilometroak egin eta egin, eta ez nuen ahuldaderik sentitu, beraz aurrera. Demagun distantzia luzetan esprint motzetan baino hobeto moldatzen naizela.

1.90 metro luze, eta 65 kilo baino ez. Zaindu egiten al zara?

Bai, zaintzen naiz, baina obsesionatu gabe, noski. Parranda gutxi egiten dut, festetan edo egun berezietan baino ez.

Euskal Herrian zikloturista izan eta Quebrantahuesos klasikoa korritzeko grina bat datoz. Nola sortu zen zure istorioa?

Mendiko bizikletarekin ibiltzen ginen errepidean, duela bost bat urte, eta halako batean koadrilako norbaitek errepidekoa hartu zuen. Pixka bat ibiltzen hasi nintzen. Lehen urtean ukalondoa hautsi nuen. 2014a izango zen. Hasieran gutxi ibiltzen nintzen, hiru urtetik hona dezente gehiago. Quebrantahuesosera apuntatu ginen, serioxeago entrenatzen hasi, eta iaz lehen aldiz korritu nuen, 6.04 denborarekin.

Unai Lizeaga urnietarra. AIURRI

Ibili egiten zarela ikusita, gusturago ibiltzen al da pertsona?

Bai, zenbat eta sasoi hobean egon, orduan eta gusturago ibiltzen da pertsona.

Mikel Iturria Euskadi-Murias taldeko lagunarekin entrenatzen duzu sarri. Hori ez du edozeinek egiten.

Beno, berarekin joaten naiz berak nahi duelako, edo entrenamendu lasaia duelako. Nahi duen tokian, nahi duen unean atzean uzten nau erraztasun handiz. Tarte handiagoa dago Iturria eta nire artean, nire eta beste edozein zikloturistaren artean baino.

Zerbait ikasiko zenuen profesionalen alboan entrenatzen, ezta?

Beti ikasten duzu zerbait, beraiek baino gehiago ez dakielako inork. Urteak daramatzate euren lanean. Estutzen laguntzen dizu, ihes egiten dizunean zirikatu bere bila abiatzeko… Bakarrik zoazenean joera amore eman eta lasaitzea da. Iturriarekin joaten naizenean beti ematen dit puntu bat gehiago. Saiatzen naiz puntutxo hori ematen, behintzat.

QUEBRANTAHUESOS 5:52:29 ORDUKO DENBORAREKIN HELMUGARATU ZEN, 25. POSTUAN

Quebrantahuesos bezalako proba batean posible al da gozatzea?

Batzuetan bai, besteetan ez. Juanma Garate zikloturistan gozatu nuen, baina Quebrantahuesos klasikoan ez. Hanketako mina eduki nuen, eta normalean ez dut edukitzen. Gero, ordu asko taldean ibili nintzen, eta ez nago ohituta. Horrek tentsio handia suposatzen du, baten eta bestearen gurpila zaindu behar hori…

Zer dauka Quebrantahuesos klasikoak, erakarpen hori edukitzeko?

Negozio bilakatu da, ahal duten diru gehien biltzen saiatzen dira, baina gen lehiakorra dugu gizakiok, eta lehiatzeko aukera ez dugunontzat kristoren aukera da. Toki edo proba ona da norberak bere muga ezagutzeko, eta bakoitzak nahi duen moduan egin dezake: bete-betean, lasai-lasai… Berekoikeria asko ikusi nuen pasa den larunbatean, indarrak gordetzeko helburu bakarra duen zikloturista on asko.

Sei ordutik behera jaisteko asmoarekin abiatu zinen. Denborak-eta ondo neurtu zenituen?

Banekien egin nezakeela, etxean egindako lan saioetatik neuzkan denbora erreferentziekin. Etxe inguruan Andazarrate, Bianditz eta Igeldo aldean ibiltzen naiz denborak-eta hartzen. Andazarrate 16 bat minututan igo izan dut denbora onena (profesionalek 13.30, azkenekoz Euskal Herriko Itzulia pasa zutenean). Bianditz 32.30 Iturriaren gurpilean, minutu bat gehixeago bera gabe. Neuzkan erreferentziekin banekien sei ordutik behera ibiliko nintzela, baina Hoz de Jacako aldapa jaitsi arte ez daukazu ziurtasunik. Azkenean 25. postuan sailkatu nintzen, 5.52.29 denborarekin.

Zein probak erakartzen zaitu, Quebrantauesos klasikoaz harago?

Alpeetakoak, Marmotte, edo Dolomitetako Maratona. Purito Rodriguezek antolatzen duenak ere bai, Andorran.

Ze plan duzu, orain, udari begira? Atseden pixka bat?

Deskantsurik ez! Beste probaren bat egingo dut, eta gero berriro korrika hasiko naiz. Behobia-Donostiarako izena eman dut dagoeneko.

AIURRI

Kontsejupeko eta zestako finalak

Kontsejupeko esku pilotako finalak jokatu ziren astelehen eguerdian. Gaztetxoen mailakoan Aimar Beroz-Julen Gaztañaga bikotea Mikel Gaztañaga-Joseba Berozi gailendu zitzaion (22-8).

Helduen mailan, berriz, Julen Loidi eta Mikel Arberas nagusitu ziren, Oier Irazu eta Aritz Eskudero bikoteari irabazita (22-14). Ohi bezala, finalistek herrikideen babesa gertu-gertutik nabaritu zuten.

AIURRI

Gipuzkoako txapelduna

Urnietarrak erakustaldi berria eskaini zuen Abaltzisketako Larraitz auzoko zelaian.
Bero handiarekin, urnietarra finalera sailkatutako lauko onena izan zen.
Hauxe, sailkapena:

1. Julen Gabirondo	2.473 kg.
2. Jokin Etxeberria	2.288 kg.
3. Jesus M.Ormaetxea	2.156 kg.
4. Jon Otegi	2.022 kg.

AIURRI

AIURRI

Kros mistoaren edizio berria

Maialen Gurrutxaga eta Pello Alkorta nagusitu ziren kros mistoan, 5 kilometroak 19:45 minutuko denboran eginez. 17 bikotek hartu zuten parte lasterketan.

GAZTELEKU

Iturzaeta memoriala

Pala motzean finalak jokatu zituzten, joan zen ostiralean. Txapelketako finala X. Ibarguren-Pichel bikoteak irabazi zuen, B. Ibarguren-Garma gainditu eta gero (40-25). Profesionaletan: Fusto-Ibai 40-27 Garate-Urrutia.

GAZTELEKU

Etxean jantzi zuen txapela

Emakumezkoen lau t'erdiko Gipuzkoako txapelketako finala Arraten jokatu zen, ekainaren 21ean. Eta bertan Gaztelekuko Nora Mendizabal Intxurreko Tolosari gailendu zitzaion.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es
PEFC/14-38-00187

Egitaraua

Ekainak 28 ostirala
19:00 Kandid@ eta bere txikitxuen etorrera.
20:00 Udal musika eskolako gazte abesbatza Berrozpen.
21:00 Oilasko afari herrikoia plazan.
21:45 Bakarrizketa saioa: Edu Mutante eta Ramon Guama. Aurkezlea: Mario Simancas.
22:30 XXV mus txapelketa azkarra Buruntzan.
23:30-01:30 NemuxDJ eta karaokea.

Ekainak 29 larunbata
10:00 Karmelo Lasarte XVI. plater tiraketa, Rezola-Buruntzan. Prestaketa saioa. 16:00tan txapelketa.
10:30 Eskupilota topaketa Goikoplazan.
12:00 Kaletxikiko XXVI. sagardo txapelketa, 12 sagardoegileen partaidetzarekin.
12:00 Haur parkea.
14:30 Bazkari herrikoia auzoko plazan.
17:00 Andoain Battle finala.
17:30 Haur parkea.
18:30 Haur danborrada.
19:00 Danborrada.
21:30 Afaria Ontzan.
23:30-01:30 Berbena Camp, NemuxDJ.
01:00 Oilasko hotza txanpainarekin.
01:30-03:00 Diskofesta, NemuxDJ.

Ekainak 30 igandea
10:00 Diana.
12:00 Meza.
12:30 Soka dantza.
13:00 Gora Kaletxikiren saioa. La Salleren ereserkiaren aurkezpena.
14:15 Bazkari herrikoia.
17:00 Gora Kaletxiki.
17:30 Gorriti Show.
19:00 Sardin jatea eta Rockalean.
Kandid@ eta Txikitxuek zapi berde beltza gordeko dute.

Hugo Lorenzo kaletxikitarra izango da aurten Kandido, ostiralean hasiko diren Kaletxikiko jaien pertsonaia nagusia. AIURRI

Hugo Lorenzo, Kaletxikiko jaietako Kandido

HUGO LORENZO ANDOAINGO KALETXIKI AUZOKO JAIETAKO 'KANDIDO'

Harrotasunez hartuko du ardura hori; "beldur eszenikoak" pittin bat larituko duela aitortu arren. Kandidoren azalean, halere, azkar batean murgilduko dela uste du

Xabier Lasa ANDOAIN

Zerk animatu zaitu Kandido izatera?

Pauso bat aurrera emateko gehiegi pentsatu beharrik ez duen horietakoa naiz, eta Jai batzordekoak nigana proposamenarekin etorri zirenean, ez nuen zalantzarik eduki. Ohorea da auzotarrak nirekin gogoratu izana, eta saiatuko naiz eskatu didatenarekin ahalik eta txukunen kunplitzen.

Iruditzen zait Kandido ez dela pertsonaia historiko bat, baizik eta Kaletxikiko jai herrikoiarekin identifikatzen dena, eta beraz, uste dut nire nortasunarekin bat etor litekeela, neu ere festazalea naizen aldetik.

Zer ari zaizu esaten jendea, izendapen ofiziala egin denez geroztik?

Sekretupean mantendu nahi nuen, baina ez dago modurik, baten bati ihes egin baitzion notiziak! Nire bikoteak jakin zuenean, "honetara ere apuntatu al zara?"' izan zen bere erreakzioa. Geroztik jakin dut zenbait auzotarrek uko egin izan diotela Kandido izateko aukerari. Lotsagatik, edo eta, hiru egunetan karguari seriotasunez eutsi behar zaiolako eta hori ez omen delako erraza izaten, igandera iritsita batik bat. Bizpahiru urte atzera Kandido izandako Ainara Lasa aholkulari fina daukat eginda, eta ostiral gauean etxean geratzeko esana dit; zaintzeko, hurrengo bi egunetan planta onean agertzeko. Saiatuko naiz aholkua betetzen.

Kaletxikiko jaietatik, zer bereiztuko zenuke?

Larunbateko sagardo dastaketa. Jende asko hurbiltzen da, giro ederra sortuz! Urtean zehar auzoan edo herrian oso gutxitan ikusten duzun pertsona ezagunekin egiten duzu topo; horiekin hizketan aritzeko aukera polita izaten da, sagardo zurrutadaren bat eginez eta pintxoren bat edo beste janez.

Zer dauka Kaletxikik, horren auzo txikia izan arren hainbesteko bizitasuna edukitzeko?

Buruntza auzoan jaio eta hezitakoa naiz, eta txikitatik bertan-bertan eduki dut Kaletxiki auzoa; ondo ezagutzen ditut auzoa zein bere jaiak. Bikotea eta biok orain bizpahiru urte Renfeko tren geltokiko etxe zaharrean jarri ginen bizitzen, eta haurra eduki dugunez geroztik eguneko ordu asko Kaletxikin igarotzen ditugu. Bertan egin dugu kuadrilla, eta gure mugimenduen eremua Buruntza tabernak, Patxiren harategiak eta janaridendak osatzen dute. Esan dezaket Kaletxikiko jendeak gertutasuna eta konfiantza erakusten duela izugarri; geroz eta gutxiago topa daitezkeen iraganeko auzo horietakoa ematen du Kaletxikik. Hernani eta Donostia aldean asko ibilia nago, eta horietan ez dut antzeko auzorik ezagutu.

andoaINDARRA
euskaraz

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA